



Sineskeriei desafio eginez

'Zuekin Ez Dok Amairu' jaialdia ospatuko du Jalgunek azaroaren 30ean / 8-9

TXINTXARRI

Tangoa, opera eta akordeoia kultur etxean

XVI. Akordeoi Jaialdia ospatu du Zero Sette orkestrak asteburuan, Iberotango eta Duo Habanerarekin / 6-7

Ekintza ugari egingo dituzte Lasarte-Orian, genero indarkeriaren aurkako egunaren harira, azaroak 25 / 2

Aparteko espetxe politika salatu eta gainditu beharreko erronkak plazaratu ditu Sarek / 4

Munduko kulturak dastatu eta ezagutu dituzte kulturarteko bazkarian, Sasoeta-Zumaburu ikastetxean / 5

Beñat Telleriak zazpi aldiz altxa du Albizuri Handi harria; hirugarren izan da Amezketan / 10

ASTE BELTZA

%20

ko **DESKONTUA**
produktu guztietan

+ MONTURA DOAN zure betaurreko graduatuetan

2019ko azaroaren 30era arte baliogarria. Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak. Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Kale Nagusia, 15
Tel.: 943 37 74 55
LASARTE-ORIA

MULTIOPTICAS
lehen zerbitzu optikoetan

www.multiopicasgipuzkoa.com   



'Nor bait zerbait egiten' ipuin-kontaketa izan da aste honetako aurreneko ekintza, Kontukantoiaren eskutik. TXINTXARRI

Kontzientziazioa eta errespetua helburu

Astebete baino gehiagoko egitaraua prestatu dute Emakumeen Zentro Zibikoak eta udalak, azaroaren 25ean, astelehenez, ospatuko den genero indarkeriaren aurkako egunaren harira. Asteon egin dituzte ekintza batzuk, eta datorrenean gainontzekoak

Txintxarri

Genero indarkeriaren aurkako eguna ospatuko da datorren asteko astelehenean, azaroak 25. Astebete baino gehiagoko egitaraua prestatu du Lasarte-Oriako Udalak, Emakumeen Zentro Zibikoarekin elkarlanean. Besteak beste, herritarrak sentsibilizatzea eta euren arteko errespetua sustatzea dira helburuak. "Indarkeria matxista izurrute izugarria da", azpimarratu du Berdintasun zinegotzi Lourdes Acevedok. Indarkeria mota hori "egiturazkoa" dela adierazi du: "Prebentziotik, laguntza sozialetik, kontzientziaziotik, sostengu juridikotik... Arlo guztietatik egin behar zaio aurre". Eskerrak eman dizkie egitaraua osatzen lagundu duten pertsoneri eta eragileei. "Zuek gabe ezinezkoa litzateke jarduera hauek egitea".

Astearte arratsaldeko *Norbait zerbait egiten* ipuin-kontaketa izan zen egitarauko lehenengo ekintza. Sei eta zortzi urte bitarteko ume ugari joan ziren

kultur etxeko liburutegira. Asteazken arratsaldean lepo bete zen Biyak Bat egoitza. Berdintasunaren inguruan aritu ziren hizketan han. Ostegun arratsaldean, berriz, *Beldur Barik* lehiaketaren sariak banatu zituzten kultur etxean. Makelur elkarteak *Encaje Roto* antzezlanaren oholtzaratuko dute gaur, 19:30ean, kultur etxean. Igandean, berriz, *Sofia* filma ikusi ahalko dute herritarrek, 19:00etatik aurrera.

Banderak, herria morez janzteko Udalak eta zentro zibikoak *Errespetuz jokatu* kanpaina jarri dute martxan. Lelo hori aukeratu dute "indarkeria matxistaren aurkako kultura" sortzeko. Horren harira, jakinarazi dute bandera moreak jaso ditzaketela herritarrek zentro zibikoan, euren balkoietan jarri eta "herria morez janzteko". Banatuko dituzte baita ere datorren asteko astelehenean, Okendon, elkarretaratzea hasten denean, 12:00etan.

Azaroaren 25eko ekintzak

- **Azaroak 22, ostirala, 19:30ean, *Encaje Roto*** antzezlan. Hiru euro balio dute sarrerek.
- **Azaroak 24, igandea, 19:30ean, *Sofia*** filma. Sarrerek, 5,50 euroan.
- **Azaroak 25, astelehena, 12:00etan,** elkarretaratzea Okendo plazan.
- **Azaroak 27, asteazkena, 19:00etan, *Erradikalak Ginen*,** kultur etxean. Sarrerek, hiru euroan.
- **Azaroak 29, ostirala, 17:30ean, *Alarma Morea*** kontzertua eta solasaldia Gaztelekuan.

Denboraren makinan bidaiatuko du herriak 2020eko Inauterietan

Diru-laguntzak eskatzeko epea ireki du udalak, abenduaren 20a arte; 12.425 euro bideratuko ditu egitasmo horretara

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udalak iragarri du zein izango den datorren urteko Inauterietako gaia: denboraren makina. Herritarrek eta konpartsek "irudimen ariketa bat" egitea nahi du. "Erabaki ahalko dute iraganera edo etorkizunera bidaiatu nahi duten". 2020ko otsailaren 23an hasiko da festa. "Inauteriak ahalik eta dibertigarrienak izatea nahi dugu".

Gaiaren berri emateaz gain, udalak jakinarazi du diru-laguntzak eskatu ahalko dituztela datorren urteko Inauterietan lotura duten ekintzak egiten

dituzten pertsona fisiko eta juridikoek. Erregistro orokorrean alta emanda egon behar dute, eta "behar bezala" bete laguntza eskatzeko orria. Abenduaren 20a izango da azken eguna. Interesa duten herritarrak Jaiak batzordera joan daitezke, Manuel Lekuona Kultur Etxera.

Hauek dira baloratuko diren irizpideak: aurrekontuak 40 puntu balioko ditu; partehartzaileen kopuruak, hoge; finantzazio-tasak, hamabost; egitasmoaren errotze-mailak eta koordinazioak, hamarna; eta konpartsa fidagarritasunak, bost.



Fikziozko pertsonaiez mozorrotu dira herritarrak aurtengo Inauterietan. TXINTXARRI

Ererikoak saihesteko tailerra, gaur, Biyak Bat egoitzan

Adineko pertsoneri zuzendutako tailer bat antolatu du Lasarte-Oriako Udalak. Gaur egingo dute saioa, 11:30etik aurrera, Biyak Bat egoitzan -Kale Nagusia, 40-. *Zahartze aktiboa* egitasmoa garatzen ari da udala; tailer hori da programaren ekintzetako bat. Landuko dute nola saihas daitezkeen mota desberdinetako ererikoak, etxean zein kalean.

Hainbat eragilek parte hartzen dute zahartze aktiboaren proiektu horretan: Lasarte-Oriako Udalak, Biyak Bat erretiratuen egoitzak, Odol Emaleen Elkarteak, Nagusilaneak, Atsobakar erresidentziak eta Osakidetzak.

Inoiz oparirik jaso ez dutenak alaitzeko, elkartasun kutxak

Lasarte-Oriako Eliza ebanjelikoak nazioarteko proiektu batekin bat egin zuen duela hiru urte, *Operación niño de Navidad*. Ekimenaren helburua, inoiz oparirik jaso ez duten umeei alaitasun apur bat ematea da. Haurrek jostailu, eskola materiala edo higiene produktuak jasotzen dituzte kutxa batean.

Antolatzaileek herritarrak gonbidatzen ditu parte hartzera. Kutxak 18x30 zm.-koa izan behar du, eta 11 zm.-ko sakonera. Jostailu, eskola materiala edo higiene produktuak sartu behar dira.

Dohaintzak bere egoitzan jasoko dira, ostegunetan, goiz eta arratsaldeetan. Azken eguna azaroaren 24a da, igandea.



Aterpeko kideak eta Nuria Fernandez Sozioekonomia arloko burua, elkartearen egitasmoaren aurkezpenean. TXINTXARRI

'Black Friday', Eguberri garaiari aurrea hartzeko

Azaroaren 29an elkarteko 23 komertzioek hainbat produktu eta zerbitzu eskainiko dituzte prezio onean. Ekimenaren bidez, Lasarte-Oriako Aterpea Merkatari eta Ostalarien elkarteak herrian erosi eta kontsumitzera gonbidatu nahi ditu lasarteoriatarak

Txintxarri

Black Friday deritzonak, Amerikako Estatu Batuetan Eguberrietako erosketen garaiari hasiera ematen dio. Saltokiek beherapen, eskaintza eta ordutegi bereziak eskaintzen dituzte. Ohitura zabaltzen joan da eta Euskal Herrira ere iritsi da.

Lasarte-Oriako Aterpea elkarteko ere bat egin du ekimenarekin eta azaroaren 29an, ostiralarekin, eskaintza eta beherapen berezietan beteko dira herriko 23 komertzio. Ramon Ormazabal Aterpea elkarteko lehendakariak ekimenaren berri eman zuen, Irigoyen optikan, Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia arloko

buru Nuria Fernandezek eta elkarteko beste kideek lagunduta.

Aritza mertzeria, Naturhouse, Maiane lurrindenda, Deco75, Arregui elektrizitatea, Imagine jantzi denda, Alba Moda, Iturbe zapatadenda, Noaoa bidaiak, Ana gizonetzkoen ileapaindegia, Mauxa mertzeria, Mabel moda, Marbel ileapaindegia, Ormazabal loradenda, Bideolagunak Halcon bidaiak, Ola enmarkazioak, Abreu bazarra, Yolanda taberna, Leder zapatadenda, Josema burdindenda, Olmi mertzeria eta Irigoyen optika. Produktu eta zerbitzu eskaintza zabala izango da. Horregatik, komertzio bakoitzak bere eskaintza eta beherapenak zehaztuko ditu

kartelen bidez, Aterpeko lehendakari Ormazabalen hitzetan.

Lasarte-Oriako bizi, Lasarte-Oriako erosi kanpainaren barruko ekimena da eta helburu bikoitza du, Ormazabalek aipatu duenez. Dendetan salerosketak sustatzeaz gain, lasarteoriatarak herriko komertzioetara erakarri eta fidelizatzea ere bilatzen du.

Aterpeak eskerrak eman dizkie Lasarte-Oriako Udaleko Sozioekonomia arloari eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo sailari, haien laguntzarengatik. Era berean, herritarrek gonbidatu dituzte egun horretan Lasarte-Oriako erostera.



NEURE KABUZ

JEXUX ARTETXE

Katalunia bero-bero

Generalitateko agintari ohiei ezarritako zigor neurrigabeen ondoren, Katalunian sortu den asaldatze-tsunami ez da harritzekoa izan. Protesta gisa egin diren elkartze eta manifestaldiak, jende oldeka, gehienak baketsuak eta eredugarriak izan dira. Larritzekoa, hala ere, zenbait arrats-gau aldera ikusi ahal izan dugun estampa; hiriburuetan piztu diren istilu eta liskar deitoragarriekin. Aurrerantzean, tentuz ibili beharko dira hango indar politiko eta sozialak, indarrezko gertaera bakan hauek kutsatuta kiribil ezkor batean sar ez daitezten.

Tsunami, kontuz metaforak adierazten duenarekin! Tsunamiak itsas-fenomeno ezohikoa da, dagoen guztiaren gainetik pasa eta suntsitzen duena. Egunerokoa bilakatuko balitz, eta esan beharrik ez dago giza-bizikidetzaren arrasto ñimiñoenarekin ere amaituko lukeela.

Katalanismoaren sortzaile nagusietako bat izan zen Almirall. Bere esanetan, Espainiak Frantziaren eredu nazionala koptatu nahi zuen, penintsulako aniztasunaren gainetik, herri-nazio bakarra eta uniformea sortarazi nahian. Gauzak ez dira gehiegi aldatu. Madrilek Paris bihurtu nahi du oraindik, inguruan dituen herrialdeak xurgagarriak direlakoan. Baina, Katalunian gertatzen ari denak adierazten duen bezalaxe asmo horrek porrot egin du. Eta, Estatu nazio-aniztasunari bide egiten ez bazaio, Katalunian sortu auzia konponbideratzen ez bada, 78ko erregimena ere zartatuta gera daiteke.

Kataluniakoa bero-bero agertzen zaigu. Hantxe dago krisiaren epizentroa, baina krisiak Estatuaren lurralde osoa harrapatua dauka. Katalanen artekoa dela ezin uka, baina Espainiaren eredu politikoa jokoan dagoela ere bai. Ba al dago denon gustuko irteerarik? Bai, adostasunaren bilaketatik abiatzen bada. Zeren itundua ez bada, bortxazkoa izango baita.

Lasarte-Oriako Udalak marketin-kudeatzaile bat behar du

Lasarte-Oriako udalak marketin-kudeatzaile bat behar duela adierazi du, bost hilabeteko lanaldian, *Tratu on bat - Un Buen Trato* kanpaina bultzatzeko.

Abenduaren bigarren hamabostaldian hasiko litzateke lana, %75eko lanaldian. Lanaren nolokotasunengatik, ordutegi

malgua beharko du izan langileak. Soldata 1.800 euro ingurukoa izango da.

Lana lortu nahi duenak merkataritzaren kudeaketarako edo marketin ikasketak izan beharko ditu, baita balioekideak diren goi-mailako ikasketak ere. Buruntzaldeako emakume langabetuek lehentasuna izango dute. EGA titulua ere beharrezkoa da. Lasarte-Oriako Lanbideren bulegoan curriculuma utzi.



Muxikoak eta Plaza Dantza saioa

Igandea, azaroaren 24ean
12.00etan Okendo plazan

(entseguak astearte eta ostegunetan
20.00etan Sasoeta eskolan)

Tto kun Kultur Ekartea



ISLANDIA
(itsas bidaiak)



NORVEGIAKO FIORDOAK
(itsas bidaiak)



ERRUSIA



NOAOA BIDAIAK

T.: 943 373 613
info@noaoa.eus
Hipodromo Etorb. 10,
Lasarte-Oria



ZETAREN BIDEA
(Uzbekistan)

TALDE BIDAIAK
Denboraldi aurrerapena



ESLOVENIA & ISTRIA

Lehentasunak garbi ditu Sare Herritarrak

Joseba Azkarraga Sare Herritarreko bozeramailea eta Jose Ramon Lopez de Abetxuko euskal preso ohia Lasarte-Oriako kultur etxean izan dira presoegun egungo egoerari buruz hitz egin eta Sarek epe ertainera dituen erronkak plazaratzeko

Txintxarri

Mendekuarien politika. Mendekuzko neurriak. Argi eta garbi definitu dute Joseba Azkarraga Sareko bozeramaileak eta Jose Ramon Lopez de Abetxuko euskal preso ohiak egun 250 euskal presotik gorak pairatzen duten aparteko espetxe politika. Kartzelan bertan aparteko trataera izateaz gain, preso hauen familiek milaka kilometro egin behar izaten dituzte 40 minutuko bisita baterako. Azkarragak erraztu dituen datuen arabera, euskal presoek %50a etxetik 1.000-1.200 kilometro bitarteko kartzeletan daude; hau da, familia horiek 2.000-2.400 kilometro inguru egin behar izaten dituzte haien familiakidea ikusteko.

Joseba Azkarragak ETA jada disolbatu den garai hauetan presoek ezartzen zaien aparteko politika honek inongo zentzurik ez duela adierazi du. Presoen gaia, gainera, kanpaina politikoetarako erabiltzea salatu du Azkarragak, PSOEn kasua azpimarratuz. Duela urtebete pasatxo Pedro Sanchezek eta Fernando Grande Marlaskak dispersio politikak jada zentzurik ez duela esan zuten, baina haiek gobernuan izan diren denbora



Joseba Azkarraga eta Jose Ramon López de Abetxuko hitzaldian. TXINTXARRI

honetan aldaketarik ez da izan kontu honen inguruan.

Jose Ramon López de Abetxukok, bere aldetik, ikuspuntu humanoagoa eman zion astearteko hitzaldiari, preso ohi bezala bere esperientziak kontatuz. Euskal presoak kartzelan zuzenean lehen graduari sartzen direla esan zuen, 22 orduko ziegaldiarekin. Lehen kartzeletako zuzendaritzak inposatu nahi zizkieten lanak, garbiketa edo sukaldatzea adibidez, egiten ez zituztela onartu zuen, "etsaiaren aginduak"

zirelako. Orain, baina, bigarren graduari lortzeko edo kondenak murrizteko lan horiek egiten dituzte. Ostiralean arratsaldeko 19:30ean Okendo plazatik mobilizazioa egingo dute.

Entzulego adindua

Azpimarratzekoa da 25 urtetik beherako pertsonarik ia egon ez izana. Arrazoi ezberdinengatik, onartu behar da gazteei -ez denei- geroz eta gutxiago axola zaiela euskal presoek egoera; gatazkaren garai gordinenak ez dituztelako bizi, agian.



Pirritx, Porrotx eta Marimotots emanaldi batean. TXINTXARRI

Zentsuraren aurkako errezeta, "alaitasuna eta dantza"

'Bizi dantza' Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldia debekatu du Iruñeko udal gobernu berriak

Txintxarri

Iruñeko udal gobernuak joan den ostegunean Pirritx, Porrotx eta Marimototsen emanaldi berria debekatu zuen kontratazioa "irregularra" zela esanaz.

Azaroaren 29an Iruñako Baluartean *Bizi dantza* emanaldi berria eman behar zuten Pirritx, Porrotx eta Marimototsek, baina Iruñeko udal gobernuak debekatu egin du. Albisteak asaldura eragin zuen sare sozialetan.

Navarra Sumaren erabakiari erantzuteko, hiru pailazoen prentsaurrekoa egin zuten Iruñako Katakarak liburudendan, eta Iruñerriko haurrek "bai edo bai" ikuskizunaz gozatu ahal izango dutela baieztatu zuten.

Kontratua formalizatu bitartean debekua kentzea eskatu zion pailazo taldeak udalari,

baina ez dute erantzunik jaso. Nafarroako Arartekoaren azken txostenean Enrique Maya Iruñako alkateari debekua kentzea eskatzen dio, onuradunak haurrak direla argudiatuz. Bestalde, kontratua irregularra izatearen errua udalarena dela azpimarratu du, eta ez ikuskizuna emango dutenena. Iñigo Sancho abokatuak onartu du gertaera honi buruz informatzea atzeratu egin dutela "hauteskunde garaian giro politikoa ez asaldatzeko".

Erantzun alai

Katxiporretako kideek gertaera hau argi eta garbi "zentsura" dela esan dute, eta horren aurrean haiek alai eta dantzan jarraituko dutela adierazi dute. Hori irudikatuz, prentsaurreko alai egin zuten pailazoen Iñigo Sancho abokatuarekin batera.

Ane Labaka eta Asier Azpiroz finaleko txartelaren bila

Oiartzungo Elsoro kiroldegian saiatuko dira Earra bertso eskolako bi kideak Gipuzkoako finalean sartzen

Txintxarri

Igandean 17:00etatik aurrera izango da Gipuzkoako Bertsolaritza Txapelketako bigarren finalaurreko saioa. Beñat Gaztelumendi, Iñigo Mantzidor, Alaia Martin eta Amaia Iturrioz izango dituzte

aurkari Ane Labakak eta Asier Azpirozek. Arrasatekoaren ostean, txapelketako bigarren finalaurrekoa da hau, eta Inaxio Usarralde egingo ditu aurkezle lanak. Hirugarren eta azken finalaurreko saioa, berriz, abenduaren lehen egunean

izango da Tolosako Usabal kiroldegian.

Saioaren irabazlea izango da zuzenean sailkatuko den partehartzaile bakarra, eta gainontzekoek eskuratutako puntuazioaren arabera jakingo dute ea Gipuzkoako Txapelketaren finalean sartzea lortu duten.

Birpentsatu beharreko mundua

Miren Artetxe Hendaiako bertsolari eta ikerlariarekin elkarlanean, *Bertsolaritza feminisotik (bir)pentsatzen* ikerketa liburua argitaratu zuen



Ane Labaka bertsotan. TXINTXARRI

Ane Labakak urriaren 22an, Udako Euskal Unibertsitatearen eskutik. Liburu honen helburua, besteak beste, ikuspuntu feminista batetik bertsolaritzaren mundua ikertzeko materiala eskaintzea da, antzinako kultura espresio tradizional honen nolakotasunez ohartu eta etorkizuneko eraldaketa baterako pausuak emateko. Izar Alguero, Maider Arregi, Maite Berriozabal, Mari Luz Esteban Galarza, Jone M. Hernandez eta Nerea Ibarzabal ere liburua egitean tartean izan dira.

Harremanak sendotu eta elkar ezagutzeko

Kulturarteko bazkaria egin dute Burunzpe guraso elkarteko kideek, Sasoeta ikastetxeko gimnasioan. Munduko hamaika tokitako platerekin, gosea berdintzeko aukera zabal eta gosegarría izan da. Jokoeekin eta karaokearekin jarraitu du nazioarteko festak

Maitane Aldanondo

Aspardeña kataluniarrak, arroza indioilarrarekin, patata tortilla, zerri haragia portugaldar erara, kuskusa, bakailaoa laranjarekin. Hemengo eta hango platerak, ezagunagoak edo ezezagunagoak. Osagai horiekin menu berezia prestatu zuten Sasoeta-Zumaburuko gurasoek joan den igandean. Janaria ikastetxeko hainbat jatorritako familiek elkar ezagutzeko eta partekatze aitzakia goxoa izan zen.

Zazpigarrenez, Burunzpe Guraso Elkarteak antolatu du kulturarteko bazkaria ikastetxeko gimnasioan. 21 herrialde eta eskualdetako ohiko 26 plater



Partaideek 21 herrialdeko platerak prestatu eta dastatu dituzte. TXINTXARRI

prestatu zituzten partaideek. 13:00etan hasita, berea ekarri zuten sukaldariek. Paper batzuetan izena, jatorria eta zer duen zerrendatu zuten; baten batek, osagai magikoa ere aitortu zuten, "maitasun asko", aurpegi irribarretsu bat ondoan marraztuta.

Mahaia betetzen zihoan bitartean gurasoek elkarren artean edo udal ordezkarietako hitz egiteko parada izan zuten. Hotzari aurre egiteko, aproposa zen te sahararra banatu zuten Salec Mohamed sahararrak, iristen zen edonori eskainita.

Azkenburuko ugari

Gozozaleak pozik egoteko moduko menua osatu zuten igandean, azkenburuko zerrenda ez baitzen laburra. Txokolatezko bizkotzkoa, filloak ezti edo txokolate kremarekin, baklava arabiarra, panna cota italiarra, gazta tarta, azenario tarta irlandarra.

Espezia eta jakien usainak bete zuten gimnasioa, eta gosea piztu zuten zain zeudenen artean; zaporea dastatzeko gogoia gero eta agerikoagoa zen. Azken

prestaketak egin bitartean, haurrak bazkaltzen hasi ziren eta helduetako batzuek argazkiak egin zizkieten mahaia betetzen zuten plater guztiei; baita bideodei baten bidez erakutsi ere. Beharra zuten janaria mikrouhin labean berotu artean, zenbatu egin zituzten platerak, puntuak banatu behar izan zituzten epaileei lana errazteko. Ardura, ama errumaniar bati eta Boris Nogales zein Agustin Valdivia zinegotzietzuei egokitu zitzaion.

Jaten hasi aurretik azken egitekoa falta zen. Ez zuten mahaia bedekatu, baina hitz batzuk esan zituzten Burunzpeko bi kidek. Eskerrak eman zizkieten partaideei eta ekimenarekin irudikatu nahi duten mezua errepikatu: "Nahasketak aberastu egiten gaitu". Jarraian, taldeko argazkia egin zuten. Eta orduan bai, masailezurak martxan jartzeko garaia heldu zen.

Bazkalondoren jolasean aritu ziren txikiak. Horman zintzilik zeuden mapetan plater bakoitzaren jatorria kokatzen ahalegindu ziren, besteak beste. Amaitzeko, berriz, 2KN tabernan karaokea egin zuten.

Eguraldia ez dute lagun izan saltzaileek zein erosleek

Sasoikoa, gertukoa eta onena ekarri dute baserritarrek Okendo plazara, Behemendik antolatutako VII. azokan

Txintxarri

Sasoiko barazkiak, gazta, babarrunak, sagarrak, erroskilak... Baserritarrek euren produktu onenak eskaini zizkieten herritarrei, izan ere, zazpigarrenez, baserriko produktuen azoka

aurrera eraman baitzuten Okendo plazan. Azoka jendetsua izan ohi da, herritarrek bertaratzen baitira ekoizleei zuzenean erosteko. Tamalez, herritarren erantzuna ez da aurrekoetan bezain ona izan. Gutxi bertaratu ziren, baina

gehienek erosi zuten zer edo zer, bereziki, ogia eta barazkiak. Goizak aurrera egin ahala eta euri zaparradak pixka bat baretzean, aterkipean postuetan zer zegoen begiratzera animatu zen herritar gehiago, eta batzuk gertuko produktuekin betetako poltsa eskuan joan ziren etxera bueltan.

Postua jarri zuten ekoizleak kezu ziren, antolatzailak ez zirelako haiekin harremanetan jarri azoka bertan behera uzteko edo estalitako beste kokalekuren batean jartzeko.



Azokara gerturatu ziren herritarrek beteta eraman zituzten poltsak etxera. TXINTXARRI





Ekonomia Ituna

zerikusia handia... nirekin!

Eta euskal herritar guztiak; izan ere, haren bidez, erantzukizunez, zorrotasunez eta sentsibilitatez kudea ditzakegu-eta euskal baliabide eta zerbitzu publikoak.

Euskadi, auzolana, bien común

EUSKO JAURLARITZA

OGASUN ETA EKONOMIA
SAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE HACIENDA
Y ECONOMIA

Doinu askotariko akordeoi jaialdia

Tangoa eta opera nagusi

Akordeoiarekin oso bestelako musika jo daitekeela erakutsi zuten Duo Habanera eta Iberotango taldeek larunbat arratsaldean, Manuel Lekuona kultur etxean. 19:00etan hasitako XVI. Akordeoi Jaialdian bikoteak operaren munduan murgildu zituen entzuleak, Bizeten *Carmen* edo Txaikovskiren *Eugenio Onegu*in ekarrira. Laukoteak, berriz, Buenos Aireseko giroa ekarri zuen agertokira. Emaldi atsegina sortu zuten ikus-entzuleen gozamenerako.

Marc Grauwels eta Christophe Delporte ia hiru ordu laurdenez aritu dira. Bikotea tango argentinarrarekiko eta Astor Piazzollarekiko zaletasunak batu zuen, baina larunbatean tangoa emanaldiaren bigarren zatiaren protagonista izan zen. Duo Habanerak Bizet, Chopin, Rossini edo Txaikovskiren operetan oinarritutako fantasiekin osatu zuen erreperatorioa, Piazzolaren *Hommage à Liège*-ren bertsio batekin batera. Zeharkako flauta eta akordeoia jotzen duten bi musikarien behatzetatik atera ziren doinu horiek guztiak, azkar edo mantso, piezak eskatzen zuenaren arabera, modu adierazkorrean beti, ageriko pasioz. Bigarren zatiaren aurretik musikaren garrantziaren inguruko gogoeta proposatu zuen Ainhoa Aiertza aurkezleak. Jarraian, Iberotango laukoteak hartu zuen agertokia. Pianoa, kontrabaxua, biolina eta akordeoiak osatzen dute. Taldea Zaragozatik etorri bazen ere, akordeoia Ander Telleria donostiarrak jotzen du. Hamar tango eskaini zituzten. Bukaeran, oroigarriak banatu zituzten jarduneko alkate Lourdes Acevedok eta Zero Setteko zuzendari Jose Manuel Crespok.



Duo Habanera taldeak ia 45 minutuko emanaldia eskaini zuen larunbateko akordeoi jaialdian. TXINTXARRI



Iberotango taldeak Buenos Aireseko kaleetara eraman zituen ikusleak tango doinueen bitartez. TXINTXARRI



Larunbateko emanaldiaren une batean, Duo Habanerak eta Iberotango taldeek elkarrekin



Marc Grauwels zeharkako flauta jotzailea. TXINTXARRI



jo zuten, eta beraiekin aritu dira dantzan Pilar Ezquerria eta Jose Antonio Gomez. TXINTXARRI



Iberotango laukoteak hamar tango eskaini ditu aurtengo jaialdian. TXINTXARRI

Azaroak 22, Santa Zezilia, musikarien eguna

Gaur, ostiralarekin, ospatuko dute musikariek euren zaindariaren eguna, Santa Zezilia. Udal Musika Eskolako irakasle eta ikasleek, ordea, aurreratu egin dute festa: astearte arratsaldean erdiguneko kaleak hartu zituzten, instrumentuak eskuetan. Musika eskolatik atera ziren, Geltoki kaletik, eta Okendo plazarantz abiatu. Han egin zuten lehenengo geldialdia; hainbat pieza abestu eta dantzatu zituzten. Adurra zerien ahotik gurasoei, txikienei batez ere, eurak horren ongi pasatzen ikustean. Mugikorrek atera zituzten askok sakeletatik, eta hurrengo egun eta asteetan oroitzeko bideotoxoak grabatu.

Okendotik irtetean erdigunea zeharkatzen jarraitu zuen musikarien kalejirak: Kale Nagusia aurrea, eta Tajamarreko biribilgunea gero. Pablo Mutiozabal kaletik jaitsi, eta kultur etxera abiatu ziren berriro. Ordubete inguruz astindu zituzten instrumentuak musika eskolako kideek: danborrak, txindatak, biolinak,

gitarra klasikoak, zeharkako flautak, trikitixak eta akordeoiak... Ikustekoa –eta entzutekoa– izan zen melodia nahasketa.

Alboka abesbatzak ere ospatuko du Santa Zezilia, urtero legez. Oraingo honetan Arantzazuko Ama parrokian ariko dira, mezarekin batera, 13:00etan. Lau abestiz osatutako errepertorioa eskainiko die herritarrei: hasteko, *Salmoa* kantatuko dute; gero, *Virgo Dei Genetrix* kantu gregorianoa; hirugarrenik, *Cantique de Jean Racine* frantsesa; eta, amaitezko, *Arantzazuko Ama Birjina* doinu ezaguna.

Musika emanaldi gehiagoz gozatuko dute herritarrek datozen asteetan. Azaroaren 29an, ostiralarekin, hasiko dira Danok Kide elkartearen XV. Musika Topaketak. Kamerata Oiasso boskoteak eskainiko du emanaldia Brigitarren komentuan, 19:30ean. Aste horretako igandean, abenduak 1, Zero Sette akordeo orkestra ariko da komentuan, 19:00etatik aurrera.



Instrumentuak eskuetan hartuta, Udal Musika Eskolako ikasleek herriko kaleak alaitu zituzten asteartean. TXINTXARRI



Okendo plazan egin zuten aurreneko geldialdia. Abestu eta dantzatu egin zuten han. TXINTXARRI



Jalguneko kideek pasa den asteko ostiral arratsaldean aurkeztu zuten aurtengo jaialdia, *Zuekin Ez Dok Amairu*. Aurkezpen ekitaldian hainbat udal ordezkari ere egon ziren. TXINTXARRI

Aurreiritziak hausteko jaialdia

Sineskeriei aurre egiteko, hamahirugarren jaialdia ospatuko du Jalgune Elkarteak. Azaroaren 30ean izango da, larunbatarekin, Manuel Lekuona kultur etxean, 18:30ean. Urtero gisa, herriko elkarte eta taldeekin batera arituko dira elkarteko lagunak taula gainean

Txintxarri

Urduritasuna nabaritzen hasi dira Jalgune elkarteko kideak, iristear baita urteroko hitzordu garrantzitsuenetakoak: jaialdia. Azaroaren 30ean ospatuko dute aurtengoa, larunbatez, kultur etxean. Pasa den asteko ostiralean aurkeztu zuten hilabete amaieran egingo duten jaia elkarteko kideek eta beraiekin izan dira hainbat udal ordezkari ere: Lourdes Acevedo, Agustin Valdivia, Boris Nogales, Jon Martin eta Joxe Pikabea. Guztiek elkarrekin, emozioak, barreak

eta negarrak partekatuzera gonbidatu zituzten lasarteoriatarak.

Zuekin Ez Dok Amairu izenburupean, hamahirugarren edizioa izango da aurtengoa, eta zenbaki horren inguruko aurreiritziekin apurtu nahi dutela iragarri dute. "Kultura askotan, hamahiru zenbakia zorte txarrekin lotzen da, baina, Jalgunen bezalaxe, ezer ez da dirudiena. Botereaz, energiaz eta alderdi positiboz betetako zenbakia da hamahirua", gogoratu zuen Pili Bermejo

elkarteko lehendakariak aurkezpenean.

Aurrez epaitutako zenbakia da eta askok nahiago dute ez erabili edo ez ikusiarena egin. "Existitzen da, ordea, gu bezala. Jalgune existitzen da, ikusi eta senti daiteke eta presente izatea

'ZUEKIN EZ DOK AMAIRU' IZENBURUA AUKERATU DU JALGUNEK; 13. EDIZIOA IZANGO DA

nahi dugu", nabarmendu zuen Bermejok.

Orain urte batzuk ametsa zen jaialdia bera antolatzea, eta jada, hamahirugarrena betetzera doaz. "Beste urte batez, frogatzen dugu aurreiritziak hori besterik ez direla: aurreiritziak".

Elkartekin elkarlana

Hitzordua azaroaren 30ean da, Manuel Lekuona Kultur Etxean, 18:30ean hasita. Bertan, Semblante Rociero abesbatza, Gazte Kluba, Sorgin Jaietako gazteak eta inauterietako konpartsek parte hartuko dute. Beraz, giro ona eta dibertigarria ziurtatuta egongo da aurten ere.

Sorpresetarako tartea uztea beti da erakargarria, baina emanaldirako prestatu dituzten zenbait esketxen berri eman dute antolatzailuek. Sorgin Jaietako gazteekin Emon musika taldearen *Txosneroak* abestia dantzatzeko dute. Gazteek prestatu dute, eta Jalgunerekin batera dantzatzeko koreografia prest dute jada.

Gazte Klubarekin ere zehaztu dute ikuskizuna, eta aurreratu dutenez, ezkutuko mezuei adi egon beharko da emanaldiaren

zati horretan; baloreei egingo diete keinu.

Horrekin guztiarekin batera, atzoko eta gaurko musika arrakastatsuekin apainduko dute jaialdia, eta, beraz, ikusentzuleek gozatu ederra hartzeko tartea izango dute.

Manuel Lekuona Kultur Etxeko eserlekuak berritu dituzte aurten, baina obra egin aurretik baino gutxiago daude orain. Beraz, ohi baino lagun gutxiagok izango du ikuskizuna zuzenean ikusteko aukera aurten. Horrela, bertatik bertara egoteko aukera ez dutenentzat, abenduaren 3an, asteartez, 18:30ean, leku berean, jaialdiaren grabaketa proiektatuko dute. TXINTXARRI aldizkaria arduratuko da bideoa grabatu, editatu eta ikus-entzunezkoa osatzeaz. Emanaldia ez da bideo proiektzio huts bat izango; Bea Egizabalek girotuko du saioa.

"BESTE URTE BATEZ, FROGATZEN DUGU AURREIRITZIAK HORI BESTERIK EZ DIRELA: AURREIRITZIAK"



Ostiraletik igandera, Astigarragako aterpetxe batean egon dira. JALGUNE

Azken entseguetan murgilduta

Atzera kontuan sartu dira Jalguneko lagunak dagoeneko. Gero eta gutxiago falta da aurtengo hamahirugarren jaialdian parte hartzeko, eta urduritasuna ere nabaritzen dute jada. Halere, urduritasunak urduritasun, lanean ari dira etengabe urteroko gisako jaialdi ederra prestatzeko.

Horrela, pasa den asteburua Astigarragako Santiagomendiko aterpetxe batean igaro zuten. Bertan, emanaldiko abesti eta dantzen entseguak egiten aritu ziren, eta emanaldian erabiliko dituzten jantziak ere probatu zituzten. Aurreratu dutenez, aurtengo jantzi koloretsuekin emango diote amaiera *Zuekin Ez Dok Amairu* ikuskizunari.

Halere, pasa den asteburukoa ez da emanaldi aurreko azken entsegu orokorra izango. Larunbat honetan Jalguneren lokalean ariko dira detaileak fintzen.



TXINTXARRI Jalgune elkartearen laguntzaile izango da hamahirugarren jaialdian

Aurtengo, ezinbestean, moldaketa bat egin behar izango du Jalgune elkarteak bere jaialdiarekin. Manuel Lekuona kultur etxeko eserlekuak eraberritzearekin batera, horien kopurua murriztu egin da, eta horrek eragina izango du ikuskizunaren aforoan. Beste urteetan baino ikus-entzule gutxiagok izango du aukera emanaldia zuzenean ikusteko, eta horregatik, sarrerarik gabe geratzen direnentzat, bideo emanaldia egingo dute, abenduaren 3an, asteartea.

Horrela, azaroaren 30eko emanaldia grabatu egingo dute,

eta TXINTXARRI aldizkaria izango da horren arduradun.

Jaialdia iragartzeko sortutako kartelean ere parte hartu du TXINTXARRI-k. Jalgune Elkarteak zazpi modelorekin elkartu –begiraleek makillatu zituzten, apain-apain–, eta kultur etxean argazki saioa egin zuen azaro hasieran. Ondoren, argazkiak ordenagailura eraman, eta lerro hauen gainean dagoen kartela egin zuten.

Erredakziotik, eskerrik beroenak Jalguneko lagunari, gudan jarri duten konfiantzagatik! Kultur etxean ikusiko dugu elkar!





Beñat Telleria *Telleria IV.ak* sekulako txapelketa egin du Amezketan, Albizuri Handia zazpi aldiz altxata. TOLOSALDEAKO ATARIA

Hamar minutu, zazpi altxaldi

Beñat Telleria herritarrak aurrenekoz jokatu du Albizuri Handi Txapelketa, Amezketan. Hirugarren postuan geratu da, 166 kiloko harri irregularra zazpi bider jasota

Txintxarri

Albizuri Handi Txapelketan aritu dira Euskal Herriko hainbat harri-jasotzaile, Amezketako Larrunarri pilotalekuan. Duela lau urte jokatu

zuten azkeneko proba hori. Erroka, honakoa: 166 kiloko harri irregular bat ahalik eta gehienetan altxatzea, hamar minutuan. Zortzi kirolarik parte

harte hartu dute aurtan. Horietako bat izan da Beñat Telleria *Telleria IV* herritarra. Oso ongi aritu da, harri hori zazpi aldiz jaso baitu hamar minutuan; minutu eta erdi jasoaldi bakoitzeko, batez beste. Txapela zarautzar batek jantzi du, Jokin Eizmendik – Euskal Herriko egungo txapelduna da –, hamaika altxaldi eginez. Inoizko hirugarren marka onena izan da hori –*Goenatxo II.ak* hamabost egin zituen 1990ean; Perurenak, berriz, hamahiru, 1977. urtean–. Bigarren postua Xabier Peñagarikano *Peña-k* lortu du, zortzi jasoaldirekin.

Lepo bete zen Larrunarri frontoia larunbatean. Zale askok uste zutenaren kontrara, Aimar Irigoien erreizidarra ez zen batere fin aritu, eta ez zuen lortu Albizuri Handi harria behin ere altxatzea. Gainontzeko parte-hartzaileen emaitzak, hauek: Aimar Galarragak, bost altxaldi; Imanol Illarramendi *Kortaberri-k*, lau; Gorka Etxeberriak, hiru; eta Josu Urbietak, Irigoienek bezala, bakar bat ere ez.

Anaiaren urratsak jarraitzen

Telleriatarrek ongi ezagutzen dute Albizuri Handi txapelketa. Beñaten anaia Urtzik aurreko bi edizioak jokatu zituen, 2010ean eta 2015ean. Irabazi egin zuen azken hori, gainera; 166 kiloko harri irregularra sei bider altxa zuen. Aimar Irigoienek beste sei jasoaldi egin zituen, baina Telleriak gutxiago pisatzen zuenez –82 kilo–, hark jantzi zuen txapel preziatua.

Berezia da Albizuri Handi Txapelketa. Probaren egunera arte, harrijasotzaileek ezin dute harekin entrenatu, ezta ukitu ere. Amezketako kondairek diotenez, XIX. mendean berdindu zuten aurrenekoz harri hori: Jose Mari Zuriarrainek altxa omen zuen 1875ean, nahiz eta inork balentria horri buruz idatzirik ez utzi. 1947an antolatu zuten aurrenekoz txapelketa: Santos Iriarte *Errekartetxo* izan zen harria sorbalda gainera igotzea lortu zuen bakarra.

Gipuzkoako Txapelketa irabazi du Juan Rodriguezek

Bost xake partida eder jokatuta, azkenekoan lortu du azken puntu eta erdia, txapeldun izateko

Txintxarri

Gipuzkoako 2. mailako xake txapelketa irabazi du Juan Rodriguez Gonzalez herritarrak. Bost erronda jokatu ditu, eta bikain aritu da guztietan: hirugarrenean eskuratu du lidertza, eta lehiaketa bukatu arte mantendu du.

Azkeneko xake partidaren lortu du txapela irabazteko falta zitzaion puntu erdia, Alex Odriozola Coscolin hamahiru urteko promesaren aurka berdinduta. Gauzak horrela, lasarteoriatarrek irabazi zuen txapelketa. Odriozola izan zen bigarren sailkatua, eta Carlos Pascual Cuadrado osatu zuen podiuma. Hamalau jokalarik parte hartu dute kategoria horretako txapelketan. Donostian aritu dira, Gipuzkoako Xake Federazioaren egoitza nagusian. Absolutu mailako txapelketa eta 3. mailakoa oraindik jokoan daude.

ASTEBURUKO HITZORDUAK

| |
|--|
| FUTBOLA |
| OHOREZKO ERREGIONALA |
| Urnieta KE - Ostadar SKT Larunbata. 15:30. Urnietan. |
| ERREGIONALEN GORENGOA |
